Arte eszenikoen bilera sektoriala 2016ko ekainaren 2an burutu zen 17:00 eta 19:30 ordu tartean Iruñeko INAP Eraikinaren Pio Baroja Aretoan.

Bilera honetan ikus-entzunezko eta zinemarekin erlazioa zuten Nafarroako erakunde instituzional, ekonomiko eta sozial ezberdinekin zerikusia zuten 27 pertsonak parte hartu zuten.

Arte eszenikoen bilera sektoriala horrela antolatu zen:

1. Kultura arloko langile teknikarien agurra eta ongietorria. 5´
2. Parte-hartze prozesuaren azalpen orokorra eta bilera sektorialaren azalpena konkretuki (arauak, bileraren egitura, etab.).
3. Kultura Ekintzaren Zuzendari Nagusiaren eskutik Zuzendaritzaren Ekintza Egitasmoaren aurkezpena.
4. Taldekako parte hartze lanaren dinamika.
5. Taldekako lanaren emaitzen bateratzea.
6. Amaiera eta azken agurra.

### **ANEXO I INFORMES ACTAS DE LAS REUNIONES SECTORIALES**



### 3.- PARTE-HARTZAILEAK

PARTE-HARTZAILEAK	
IZEN DEITURAK	ERAKUNDEA
DUILIO ABBONDI	ALMUDENA LOBÓN E. P. DANZA-ALDANZA CÍA. DE DANZA
HELENA AMONARÁIN	TRUKE GESTIÓN Y DISTRIBUCIÓN SL
LOREA ARBURUA AMORENA	NAFARROAKO BERTSOLATZE ELKARTEA
MARÍA ARCOS	ASOCIACIÓN CULTURAL SONRÍE QUE NO ES POCO
CARMEN AEROPAGITA GRACIA	AYUNTAMIENTO DE SANGÜESA/ZANGOZA
JOSÉ MARÍA ASÍN ESCUDERO	AYUNTAMIENTO DE ZIZUR MAYOR
CARLOS BERNAR	MUSEO UNIVERSIDAD DE NAVARRA
DAVID BERNUÉS SUAREZ	ACRÓNICA PRODUCCIONES
JOSU CASTILLO TISCAR	LA PUERTA ROJA – ATE GORRIA TEATRO AMATEUR
REBECA ESNAOLA BERMEJO	GLOBAL SERVICIOS CULTURALES
DAVID LAINEZ AGUIRRE	YARLEKU ANTZERKI-TEATRO
PATXI LARREA SALINAS	
JAIME MALÓN FERRER	FEDERACIÓN TEATRO AMATEUR DE NAVARRA
M <sup>a</sup> SOLEDAD MARTINEZ CASPE	AYUNTAMIENTO DE AOIZ
ADRIANA OLMEDO MERINO	TDIFERENCIA S. COOP./NAPAE
JUAN CARLOS ORNAT JIMENO	NAFARROAKO DANTZARIEN BILTZARRA
OSCAR ORZAIZ RESANO	ILUNA PRODUCCIONES
FCO. JAVIER PEREZ EGUARAS	ESCUELA NAVARRA DE TEATRO/NAFARROAKO ANTZERKI ESKOLA
AURORA PEREZ URBANO	CASA DE CULTURA AYTO. SAN ADRIÁN
CONCHI REDÍN ORZAIZ	TDIFERENCIA S. COOP.
MAITE REDÍN ORZAIZ	TDIFERENCIA S. COOP.
VIDAL RUIZ SAENZ	
BECKY SIEGEL	KON MOCIÓN TALLER DE DANZA
GHISLANE VERANO	ASOCIACIÓN M´ATAKALADANZA
ESTIBLAIZ ZUBIETA	FUNDACIÓN ATENA
ÁNGEL SAGÜÉS	ATIKUS TEATRO
LORENZO GARCÍA ECHEGOYEN	AYUNTAMIENTO DE CINTRUÉNIGO

ANTOLAKETA	
IZEN DEITURAK	ERAKUNDEA
NURIA ÁLVAREZ AJURIA	GOBIERNO DE NAVARRA
DORI LÓPEZ JURÍO	GOBIERNO DE NAVARRA
JAVIER ESPINOSA OCHOA	EIN
ABEL DEL REY	EIN
JAGOBA ESAIN	EIN

#### ANEXO I INFORMES ACTAS DE LAS REUNIONES SECTORIALES

PRIMER INFORME DEL PROCESO DE "GESTIÓN Y DINAMIZACIÓN DEL PROCESO DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA VINCULADO A LAS LÍNEAS ESTRATÉGICAS Y PLAN 2016-2019 DE LA DIRECCIÓN GENERAL DE CULTURA DEL GOBIERNO DE NAVARRA"

#### 4.- BILERAREN GARAPENA

Nuria Álvarez Ajuria, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren ordezkariak bertaratutakoak agurtu eta bileran parte-hartzea eskertzen die, bileraren helburu eta edukiak laburki azalduz. Honen ostean Dori López Julio, Kultura Ekintza Zerbitzuaren Zuzendaria, eta Javier Espinosa Ochoa, parte-hartze prozesuaren arduraduna den EIN enpresako kideak, aurkezten ditu.

EIN-en kide den Javier Espinosa Ochoak bertaratutako pertsonak agurtzen ditu eta prozesuaren eta parte-hartze dinamikaren aurkezpen orokorra azaltzen du.

Ondoren Dori López Juliok, Zerbitzuaren Zuzendariak, Kulturako Ekintza Egitasmoa laburki azaltzen du.

Behin parte-hartzaileek euren buruak aurkezten dituzten talde lan dinamikari hasiera ematen zio. Azaldu eta landutako auzien inguruko emaitzak azaltzen dira orain.

<b>1.- Arte eszenikoen sektorearen diru-laguntzen deialdien balorapena. Hobekuntzak, aldaketak, etab</b>
▪ Diru-laguntza oraindik kaleratu ez izana oso negatiboa da eta agente askoren gaineko eragina dauka. Diru-laguntzak urtearen lehendabiziko partean plazaratu beharko ziren antolatzaile eta produkzioen kudeaketa ahalbidetzeko.
▪ Orokorrean diru kantitatea ez da behar bezain adina eta beste arloekin konparatuta baxuagoa (adibidez musika).
▪ Diru-laguntzei dagokienez aldaketa handirik ez da susmatu, euskara eta kultur herrikoien kasuak aparte.
▪ Diru-laguntzak eremu itxi baten barne daudela dirudi eta konpainia zehatz batzuek diru-laguntzak "bermatuta" dituztela.
▪ Deialdiak ez dira programa politikoetan bete beharreko espedienteak, egutegi eta aldien inguruan pentsatu beharra dago. Deialdiak astiarekin plazaratu beharko ziren, ez azken mementoan. Urte hasieran irten beharko ziren, ez amaieran (batez ere Produkzioan pentsatzen). Ekainean plazaratzen badira eta 3 hileko epea izanda eskakizunak betetzeko jada urte amaieran gaude. Enpresentzat kaltegarria da produkzioarentzat finantziatorik izango duten ez dakitelako.
▪ Deialdiak atzeratzea azken hiruhilabetekoa betetzen du. Profesioaren kontra doa, bai sortzaile bai antolatzaileen kontra.
▪ Epeen gaia kontraesana da oso, diru-laguntza lortzen da eta dirua behin estreinaldia burututa ematen dute. Diru-laguntzak aurretik ordaindu beharko ziren.
▪ Diru ematearen ikuspuntu ekonomikoa beste mekanismoetara bideratua egon beharko zen; hala nola, laguntza fiskalak, koprodukzioa, aretoetan sartzeko erraztasunak, etab.
▪ Muntaiarentzat ez dago diru-laguntzarik. Beste parte-hartzaileen arabera diru-laguntza horiek plazaratu berriak izan dira baina oraindik ez dira NAO n argitaratuak izan. Mutaian lan egiten duten profesionalentzat diru-laguntzak izango dira.

#### **ANEXO I INFORMES ACTAS DE LAS REUNIONES SECTORIALES**

## 1.- Arte eszenikoen sektorearen diru-laguntzen deialdien balorapena. Hobekuntzak, aldaketak, etab

- Produktorako diru kantitatearen murrizketa eragozpena da, artistikoki sortzea asko zailtzen duen aspektua.
- Bira helburu duten diru-laguntzak oso eskasak dira, izan ere, gastu normalenak ez dira bertan sartzen eta honek Nafarroako konpainiak kanpokoekin lehian ibiltzea asko zailtzen du.
- Diru-laguntzak misterio hutsa dira. Zer dela eta eskaintzen dira? Emandako kantitateen zergatia? Zergatik dituzten epealdiak? Dirudinez Sailak aurrekontu finko bat dauka eta sektorearen egoera zehatza kontuan hartu gabe banatzen du. Sektorea eta beer egoeraren azterketa oso garrantzitsua da Nafarroak ezohizko berezitasunak baititu.
- Arte eszenikoak etengabeko garapenean daude, diru-laguntzak honekin batera egin behar zutelarik. Antza denez pixkanaka beste manifestaldi artistikoak ulertzen ari dira, adibidez performancea.
- Dirudinez diru-laguntzetan aldaketak ezartzerako nahian proaktibitate handiagoa dago, bestalde oso motelak dira aldaketak.
- Diru-laguntzen irizpideak birpasatu behar dira, zergatik ikuskizun batzuek besteek baino "balio" handiagoa dute?
- Esperientzia urteek gehiegi puntuatzen dute, konpainia berriei arazoak sortzen dizkietenak eta ez du sektorearen dinamismoa aintzat hartzen.
- Diru-laguntzen deialdien irizpidean berrikusi behar dira. Anbizioa eta argitasuna falta dira. Zergatik aldatzen da deialdia? Antza denez urte batetik bestera aldatzen direla jendearen kexen arabera. Zentzua eman behar zaio prozesuari, ekonomiko, esleitzekoa eta balorapenekoa.
- Ikuskatzaileen betebeharra behin eta berriro agertzen da. Hauek hainbeste atzeratzen dituzte ordaintzeak non enpresa asko muturreko egoeretan izaten diren. Ez da sektorea "gaizkile" multzo bat bezala antzeman behar. Arte eszenikoen balorapenak kultura kudeaketa ezagutzen jendeen menpe egon beharko zen. Sailak, ikuskatzaileek eta agente ezberdinek batera elkarlanean egin beharko zuten. Saila ikuskatzaileen iritzia menpe dagoela dirudi.
- Erabakitze epaimahai ezberdinak bultzatu beharko ziren (diru-laguntzak eskatzen dituzten proiektuak baloratzeko), beste Erkidegoetatik etorriak, etab. eta aldioro berritu ahal izatea.
- Nafarroako produkzioak bertako espazio eszenikoetan bultzatzeko esfortzu nabarmenagoa egin behar du zitzuten erakunde ezberdinek, adibidez Nafarroako Antzerki Sarea edota Kultura Sailak.
- Batzuetan diru-laguntzak lortu dituzten proiektuek ez dituzte espero ziren emaitzarik lortu, kanpo geratu diren beste ikuskizunak ez bezala. Nafarroako Gobernuak, espazio eszenikoen bitartez, bigarren kasukoak laguntzeko Egitasmo bat izan beharko zuen.
- Antzerkia gaztelera eta euskaraz egitea lan bikoitza izanda diru-laguntzetan jasota egon beharko litzateke.
- Kultura sektoreetan, Kultura Sailak epe motzean egiten du lan soilik, epe luze-ertainera pentsatu behar denean. 10 urterako plangintza egin beharko zen sektore koherente bat lortzarren.
- Diru-laguntzen zati bat Nafarroako kultura hedatzeko gorde beharko zen. Nafarroako artistak jaialdi ezberdinetan bultzatu beharko ziren.

### ANEXO I INFORMES ACTAS DE LAS REUNIONES SECTORIALES

## 1.- Arte eszenikoen sektorearen diru-laguntzen deialdien balorapena. Hobekuntzak, aldaketak, etab

- Arte eszenikoen sektorea alde batera utzita dago. Behar bezalako sektore profesionala beharrezkoa da Nafarroan eta bertatik kanpo lehiatu daitekeena. Hurrengo belaunaldietan pentsatutako Egitasmoa bultzatzea, esportagarria dena. Sektorearen ikerketa egin beharra dago. Sailak behatoki bat sortu nahi du, baina hau ez da lehentasunik duen zerbait.
- Nafarroako Dantzarien sektoreko kexa azaltzen da, izan ere Nafarroako herri-dantzak lantzen duten 80 taldetik gorako eta talde baten barne ez dauden eta dantza hauek ikasten dituzten milaka pertsona daude, diru-laguntza ekonomikorik gabe izan ohi direnak.
- Nafarroarentzat oso baliagarria de Ondarea mantentzen dute eta ez dute laguntzarik. Nafarroako Orkestra Sinfonikoarekiko diskriminatuta daude, diru-laguntzen zati garrantzitsua hartzen duena. Diru-laguntzarik izango bazen Nafarroan izaera profesionaleko herri-dantza taldeak izango ziren.
- Sailaren alde positiboa kultura herrikoia agerian jarri nahia da.
- Diru falta sumatzen baldin bada, baremoetan lehentasuna ezarri behar dira. Deialdietan federazioak bultzatuko direla agertzen da, laguntza ekonomikoa izatea eskatzen da.
- Herri-dantzak denboran zehar ohiturari esker mantentzen direla aipatzen da, herritarren ondarea baitira eta horregatik laguntzarik gabe mantentzeko gaitasuna.
- Ez da "arte" ezberdinen artean lehiarik izan behar. Lehiaketa konpetitibo bat lortu behar da, hau da, diru-laguntzen aurrean denok aukera berdina izatea. Guztientzako tokia behar da.
- Profesionalen eta amateurren arteko lehia espazioen inguruan ematen da arlo ekonomikoan baino, azken hau deialdi ezberdinetan antolatuta baitago. Askotan talde amateurrek profesionalek bezain beste diru kobratzen dute, lehendabizikoen gastuak, nire aburuz, ez du talde profesionalen gastuekin zer ikusirik. Profesionalak eta amateurrek "liga" ezberdinetan aritu behar dira, bai espazioaren kontura, bai diru-laguntzei dagokienez.
- Nola izan liteke diru etekinik gabeko elkarteek 50.000€tik gorako diru-laguntzak eskatzea?
- Kudeaketaren arlotik, antzerki amateurra inoiz baino hobeto dago, profesionala bien bitartean inoiz baino okerrago; hala ere, amateurren arte eszenikoa baita herri-dantza taldeak berebizikoak dira lehen hasiera pausuak baitira eta bultzatu beharrekoak.
- Proiektu handienak diru etekinik gabeko elkarteentzat dira proiektu profesionalak itotzen diren heinean.
- Diru-laguntzen parterik handiena musikak hartzen du.
- Esleitutako diru-laguntzen kantitatea prozesu hasieran eskuratu beharko zen eta behin proiektua justifikatua izan, ordaintzea ahalik eta azkarren egitea. Ikuskatzaileekin dituzten arazoak berriro ere agertzen da, kultura inguruan ezer gutxi jakinda ordainketak eteten dituztenak. Azken hauen ekintzak direla eta Saila blokeatuta dago.
- Nafarroan diziplina ezberdinak daude, Bertsolariena kasu, ez musikaren barne, ez arte eszenikoen barne ez daudenak eta diru-laguntzarik jasotzen ez dituztenak. Kultura arlo hauentzat espazio irekiera eskatzen da.
- Ekintzen programatzaileei dagokienez, diru-laguntzen berandutzeak programazioa jadanik antolatua egotea dakar, bere alde positiboak eta negatiboak dituena.
- Diru-laguntzek ez dute Kultur Etxetako profesionalen formazioaren inguruan ezer aipatzen. Ez dute formaziorik jasotzen eta hauek dira kultura jardunaldi asko antolatzen dituztenak.

### ANEXO I INFORMES ACTAS DE LAS REUNIONES SECTORIALES

### **1.- Arte eszenikoen sektorearen diru-laguntzen deialdien balorapena. Hobekuntzak, aldaketak, etab**

- Praktika Profesional Egokirako Kodea egin beharko zen sektore honetan erabiltzen den diru publikoaren gaineko kontrola areagotzeko.
- Iruñerriatik kanpo dauden zonaldeekiko oreka handiagoa beharrezkoa da.
- Produkzio eta biren inguruan hausnartu beharra dago. Birak egiteko proiektuek jasotzen dituzten diru-laguntzak akatsak dira, egun antolatuta dauden bezala bederen.
- Emaidza artistikoen arabera esleitu beharko ziren diru-laguntzak.
- Birak bultzatzeko diru-laguntzen kantitatea handiagoa izan beharko zen, etekina Nafarroako Gobernura bueltatuko zelarik.

### **2.- Arte eszenikoen berezko programak direla eta (Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdia, dantza jaialdia, koreografia eta mugimenduaren arteak, Kultur, etab.) Haien inguruan eta egindako aldaketen inguruan zer iritzi duzu? Programa berriak eratu behar direla uste al duzu? Zeintzuek?**

- 400//1000 programak profesionalen artean publizitate falta nabaria da. Egitaraua ez da ezagutzen. Dibulgazio handiagoa behar du.
- Dantza jaialdiaren inguruko informazioa ezagutzen korreo elektronikoz bidalia izan baitzen. Oraindik ez da zehazki ezagutzen baina "itxura polita" omen du. Arazo nagusia epeen kontua izan behar da, ekainean oraindik aukeratuak ezagutzen ez baitira, urrirako ikuskizuna prestatzea nola izango da posible? Hau profesionalki ezinezkoa da.
- Dantza Programan gai klasikoetatik haratago ez dago aukerarik. Horretaz aparte parte hartzeko eraren inguruan informazio gutxi luzatzen zaie.
- Dantza jaialdian herri-dantza ez barneratzea aipatu izan da, bizitasunez betetako diziplina izanda eta beraz garaikidea. Diru-laguntzen terminologia oso itxia da eta herri-dantza oso mugatua dago, Kultur, antzerki edota beste diru-laguntzak eskatu ezinik. Nafarroako Dantza Eskolaren barne egotea eskatzen da.
- Ironikoki inork jaialdi hauen "tradizioa" zalantzan jartzea aipatzen da (Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdia, Lizarrako Antzinako Musika Jaialdia, 400/1000). Urtero hauek aldatu beharra aipatzen da baina egoera ezer gutxi aldatzen da. Erriberriko jaialdia hasiera batean ezinbesteko esperientzia izan zen, baina egun kulturala baino esperientzia turistikoa da. Lehenik eta behin azpiegiturak berrikusi beharko ziren ez baitira egokiak antzerkirako. Berrikusi beharko zen eta testuinguru klasiko horretan berriztatu. Erriberriko Antzerki Klasikoari Klasiko epigrafeak kentzea.
- Kultur eta 400/1000 arteko ezberdintasunetan nahasmena dago.
- Kultur-en epeen zabaltzeak bete betean jo du.
- Kultur-en espazio eszenikoak oso mugatuak direla eta, soilik artista jakin batzuek eraman ditzakete euren ikuskizunak.
- Bai Kultur, bai 400/1000 artistengana irekiagoa izan behar zuen, gardentasun handiagoa izanda eta artista eta konpainia gehiagori parte hartzeko aukera eman beharko zieten.
- 400/1000 Programa ez da parte-hartzean oinarritu era beraz programaketarako proposamenik aurkeztea ez da posible izan.

#### **ANEXO I INFORMES ACTAS DE LAS REUNIONES SECTORIALES**

**2.- Arte eszenikoen berezko programak direla eta (Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdia, dantza jaialdia, koreografia eta mugimenduaren arteak, Kultur, etab.) Haien inguruan eta egindako aldaketen inguruan zer iritzi duzu? Programa berriak eratu behar direla uste al duzu? Zeintzuek?**

- Programen ez dago euskarazko formaturik. Kultur programaren barne 2012. urtera arte euskarazko aukera bazen. Aurtengo diru-laguntzek euskarazko proiektuei bost puntuko aldea eskaintzen dutela argitzen da.
- Jaialdietan parte hartuko duten taldeen aukeraketarako sistema plural eta irekiagoa izan beharko litzateke, talde askori parte hartzeko aukera eskainiz. Konkurrentzia publikoa antolatu beharko zen.
- Eskaintza udalerrietara itxita heltzen da, hautatzeko aukera gutxi egonda.
- Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdia ez du estatu mailako garrantzia lortu, guztiz kontrakoa izan beharko zen bertara zuzentzen diren baliabideak kontuan hartuta. Erriberriko bereko herritarrak ez daude barneratuta, parte-hartze kontzientziarik ez dago, ezta sektore turistikoaren laguntzarik.
- Erriberriko jaialdiak dituen aurrekontuen zatirik handiena azpiegituretarako erabili beharra dago, eszenatokia eraikitzean kasu. Beste toki batean egingo bazen, adibidez Iruñean, Jaialdia hazi egingo zen, zentzu handiagoa izango zuen, Erriberrin sozialki ez baita lagundua izan.
- Erriberriko Jaialdian aldaketak izan direla aipatzen da, hala nola mikroantzerkiak, ikuslearentzat oso interesgarria izan daitekeen formatua, baina ekonomikoki nekagarria konpainientzat programazioaren egitura dela eta.
- De Gira programa alde batera uztea akats larria izan da, akaso eraldatu beharko zen, baina ez errotik moztu.
- Dena biltzen duen Antzerki Jaialdia beharrezkoa da, hasierako Erriberriko Jaialdiak zuen espiritua berreskuratzeko.
- Antzerki Amateurreko Jaialdiaren kudeaketa Administrazioaren menpe izatea komenigarria litzateke.
- "Egoitzaren" baldintzak berrikusi behar dira. Egoitza proiektu garrantzitsua burutu nahi bada, langileak beharrezkoak dira eta honetara zuzentzen den kantitate ekonomikoa beti eskasa da.
- Programa berri gehiago burutzea baino, jada eginak daudenak udalerrira gehiagotara heltzea da garrantzitsuagoa. Udaberri eta udazkeneko zikloak herriak animatzen zituzten eta konpainiek ekintza gehiago zuten esku artean.
- Amateurrei zuzendutako programak izatea interesgarria litzateke.
- Dantza eskola pribatuek ume asko hezten dituzte eta gero ez dute laboralki aurrera egiterik. Nafarroako Gobernuak jarraitzeko aukera eskaini beharko zuen programazioen barne.
- Azoken gaia konpainientzat koste handia suposatzen du. Nafarroako Gobernuak Kultura Sailaren bitartez stand bat jarri beharko zuen azoka ezberdinetan Nafarroako kultura bultzatzeko eta konpainia guztiek euren produktuak stand horietan aurkeztu ahal izatea. Gobernuak arlo honetan primeran dabilzaten beste Erkidegoengandik ikas zezakeen.
- Profesionalak egunera moldatu behar da. Antzerkia ulertzeko eta burutzeko era berriak daude. Jendea era berri honetara moldatu beharra dago, bai antzerkian, bai dantzan.
- Zonaldeen errealitate soziokulturalekin bat egiten duten programarik ez dago, kultura artekotasuna ez da kontuan hartzen.

**ANEXO I INFORMES ACTAS DE LAS REUNIONES SECTORIALES**

**2.- Arte eszenikoen berezko programak direla eta (Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdia, dantza jaialdia, koreografia eta mugimenduaren arteak, Kultur, etab.) Haien inguruan eta egindako aldaketen inguruan zer iritzi duzu? Programa berriak eratu behar direla uste al duzu? Zeintzuek?**

- Antzerki eta dantzara hurbiltzeko programak sortu beharko ziren, batez ere zailtasun sozial eta ekonomikoak dituzten ikusleei.
- Ikusleak sortzeko politika beharrezkoa da, arazo handi bat baita. Administrazioak Hezkuntza eta beste arloetatik landu behar du gai hau.
- Programazio komertzialaren inguruko eztabaida amaigabea da, alternatiboa, orekatua? Antzerki komertzialak aretoak betetzen ditu, baina antzerki klasikoarekin batera lan egin behar du.

**3.-Nafarroako arte eszenikoen sektorearen ikuspegi globala. Legislatura honen etorkizur nola aurreikusten duzu?**

- Nafarroan potentzial artistiko handia dago. Sektore barneko jendearen arteko elkarlan handiagoa beharrezkoa da.
- Antzerki profesional eta amateurraren arteko espazioak, laguntzak eta programazioak bereizteko behar handia dago.
- Sektore profesionalaren egoera oso konplexua da, gero eta profesional eta konpainia gehiago desagertzen baitira. Egoera hobetuz den beste tokietara begiratu beharko genuke (Europa mailan, Euskadi, Katalunia)
- Kultura turismoaren garapena eta Nafarroako artista eta ikuskizunen promozioaren arteko lotura bultzatuko zuen estrategia beharrezkoa da.
- Nafarroako antzerki komertziala Nafarroako biztanleekin bultzatu beharra dago, gero hau kanpora ateratzeko. Telebistarako antzerki komertziala erabilgarria da oso, telebistan agertzen dena erakargarria da, aurpegiak berehala ezagutzen dira, baina kontu handiz egin behar da hau. Produkzio mailan ez dago soilik komertziala bultzatzea, bestela jendeak ez du besterik ezagutuko. Antzerki komertziala Nafarroako aktoreak bertatik kanpo ezagutuak izateko tresna izan litzateke.
- Etorkizuna elkar lanean oinarritu beharko da, sarean, adibidez, prezio orokorrak dituzten ikuskizunen politika. Ezinezkoa da profesionalak "de baldeko" kulturaren barne haztea, ikuskizuna baloratzearekin kontrajartzen dena.
- Gobernuak azokak eta merkatuak bultzatu beharko zituen sektorea ezagutarazteko. Arte eszenikoetako konpainiek ikuskizunak behar dituzte produkzioak bertan zentzua lortzen baitu. Diru-laguntzarik jasotzen ez duen arloari aukera ematea.
- Gayarre sariaren huts egitea aipatzen da, sariaren deialdiaren proposamen okerra dela eta. Dena den, berreskuratu beharreko esperientzia interesgarria da. Sektore artistikoa hauskorra da eta Saila barne egon beharra du. Antzoki sarearen, Nafarroako Gobernuaren, Kultura Sailaren eta Gayarre Antzokiaren arteko koordinazio egokia izatea beharrezkoa da.
- Koordinazioa Antzoki Sare, Nafarroako Gobernuko produkzioa eta konpainien artean ere beharrezkoa da.
- Gutxi erabilitako antzoki sarea dago, publikora ireki behar dira. Baluartean ez da Nafarroako kultura, ikuskizun edota konpainien alde egiten.

**ANEXO I INFORMES ACTAS DE LAS REUNIONES SECTORIALES**

### 3.-Nafarroako arte eszenikoen sektorearen ikuspegi globala. Legislatura honen etorkizur nola aurreikusten duzu?

- Sarearen espazio ezberdinak konpainiei lotuta egon beharko zen, "bertako konpainia" kontzeptua sortuz.
- Eredutzat ikuskizun jakin bat jartzen da. Eszenatokian arrakastatsua izan zen oso baina gero biran joateko ezin izan zituzten arte eszenikoen diru-laguntzatik lortu. Oso ongi zebilen ikuskizunak hiru emankizun baino ezin izan zituen burutu birarako dirurik ez zuelako. Nafarroako Gobernuak ezarritako dirua erdibidean galdu egin zen eta ez zegoen bueltarik izan.
- Nafarroako Gobernuak Nafarroako sektorearen profesionalen aldeko Manifestu baten beharra dago. Epe ertainera burutu nahi diren helburuekin eta noraino heldu daitekeen. Itxaropenak ezagutzea.
- Erabat beharrezkoa da legedia zehatz bat, non kultura sektorearen itxaropenak, helburuak eta baldintzak agertzen diren. Legedi hau edonori irekitako (amateur, profesionalak, Gobernuak, etab.) Foru baten emaitza izan behar da. Egoera ikertu egin behar da eta honen arabera legedia ezarri.
- Profesioaren behin behinekotasuna kontuan hartzea, berezko jurisprudentzia behako zuenak.
- Sektorearen enpresek marko juridiko zehatz bat behar dute, horren barne garatu daitezkeen.
- BEZ-aren beherapena eskatzen da.
- Herri-dantzek diskriminazio positiboa eskatzen dute. Balorapenei baremoak ezartzea. Burututako lanen emaitzak baloratu behar dira.
- Sektorearen ikuspuntu globala ordenarik eta orientaziorik gabekoa da. Helbururik gabekoa ezta kultura politikorik gabekoak ere, ez arlo legegilean, ez programatikoan.
- Parte-hartze prozesuak onuragarriak dira oso baina Gobernu aldaketa eta urte bat geroago ez da garrantzizko aldaketarik susmatzen. Sailaren ildoak ez daude batere argi.
- Alderdi politikotik aparteko hitzarmena beharrezkoa da. Sektorearen barne nahi duguna eta behar duguna, hemendik hamar urtera aurreikustea.
- Sormena (diru-laguntzak, araudia) eta hedapena (espazio eszenikoak) zaindu behar dira.
- Ikasketen gaia dela eta Nafarroako Gobernuak zeregina du oraindik. Nafarroan Antzerki Eskola bada baina ez du titulazio ofizialik. Formakuntza Profesionalaren bigarren graduarekin bateratu behar da. Batxilergo artistikoaren ostean ez dago Erkidegoan ikasketekin aurrera egiterik.
- Ikasketetan zeharkako eran baloratu behar dira arte ezberdinak, maila guztietan, publikoak sortzeko.
- Koprodukzioak bultzatzeko beste Erkidegoekin elkarlana bultzatu beharko zen.

#### ANEXO I INFORMES ACTAS DE LAS REUNIONES SECTORIALES



#### 4.- Gainerakoak

- Bertsolariak tokiz kanpo daude, ez euren nahiagatik, dinamika hauekin zerikusia duen oron. Bereak bezalako arteak zabaltzeko politikak behar dira. Kultura balorapena aldarrikatzen dute, ez soilik herritarra edota euskara zabaltzeko medio bezala.
- Kultura azpiegitura eta euren kudeaketarako estrategiak birpentsatu behar dira. Jardunaldi gehiago beharrezkoak dira, izan ere, azpiegitura asko dago jardunaldi gutxi dagoen bitartean.
- Antzerki amateurraren espazio naturala espazio publikoak dira, bertan sortu izan baitzen Mugimendu Amateur Kulturala baita Kultura Basea ere eta beraz espazio irekietan bilakatu beharko ziren.
- Publikoaren sorkuntza berebiziko garrantzia duen gaia da, Nafarroako Gobernuaren eta sektore kulturalen arteko estrategia komunitatik hasita.
- Nafarroako gaitasun eta adimenak bultzatu behar dira baina kanpokoari uko egin gabe.
- Parte-hartze prozesuak kultura politikan era jarraian egon behar dira, ez puntualki.

#### 5.- LABURBILKETA ETA AGURRA

Behin lanaren dinamika amaituta sesioaren Parte-hartze teknikariak bertaratutakoei parte hartzea eskertzen die eta parte hartzera animatzen ditu hurrengo parte-hartze tailerretan, baita Nafarroako Gobernuaren Gobernu Irekia web orrialdean eta [participacioncultura@navarra.es](mailto:participacioncultura@navarra.es) helbide elektronikoaren bitartez.

Bertaratutakoei tailerraren ebaluazio galdetegia betetzeko eskatu eta gero, txostenaren zirriborroaren eraketaren inguruaren berri ematen da hau berrikus dezaten inork bertan aldaketarik egin nahiko balu.